



LIBURUA

Fiskaltza ala arrantza



ERRUA ETA MAITASUNA MARKOS ZAPIAIN

ELKAR, 2002

ARITZ GALARRAGA

Badira genero batzuk liburugintzan, oro har, baina partikularki gurean, gutxitu, txikitu, menostuak. Poesiaren bazterketa garaikidetik has gintezke, teatroaren oilotokirako kondenaaraino. Iraganik memoriaren literatura esaten zaien oroitzapen, karnet, egunkari eta abarrekoetatik. Bai eta, zergatik ez, bildumak, adibidez prentsan atera izan diren testu, adibidez liburu iruzkinekin. Generoak nahastera jarrita, dietario literario modura irakur daitezke batzuk, autore baten irakurketa zerrenda komentatu gisa, are autore horrek deitura Zapiain badu, eta Markos izena. “Kritiko enpatikoa”, Xabier Mendiguren hitzaurregilearen hitzetan, liburuarekin erotu arte bat egiten baitu, “liburuaren gakoa atzeman eta nabaritzekotan”.

Errua eta maitasuna titulupean, 2000. urtearen bueltan Zapiainek hainbat agerkaritan atera zituen kritikak biltzen dira. Kritika, iruzkin, erreseina, deitu nahi bezala, ze, Mendigurenen hitzak berriz, Zapiainek “prentsako erresein funtzio duin baina txepela gainditu egiten du, eta literaturaren larreetara hegaldatu”. Hemen primerako jeneroa aurkituko duzu. Filosofiatik gertu maiz, fikzioaren ingurumarietan ez gutxitan, are tarteka prentsa arrosarekin limurkeriatan. Liburu bat eta bakoitzaren gaineko iruzkin guztiek jarriko zaituzte martxan. Bainaren bat seinalatzearen, emakumezko idazle gutxi, Agirre, Highsmith, Woolf bi aldiz, erreferentziaren bat: “Muguruzatarrak gero eta nabarmenago dira geure kulturako Brönte ahiz-

pak”. Beste garai batzuk ziren, egia da, aro aurre-feminista kokatu behar gara.

Ezer ez inor mespretxatu gabe, baina bat nator: “Zapiainentzat literaturaz ezagutza-bide gorenetakoa bat da”. Gauza litzateke, hartara, literaturaren gainean nola jardun. Azken kapitulu xume batean, kritika literarioaren poetika moduko bat aurkezten zaigu, ados egon zein ez, jakingarri suerta dakigukeena: “Liburuez aritzeko orduan, batzuek epaitzea lehenesten dute; beste batzuek, osteraz, ateratzea, atzematea”. Fiskaltza ala arrantza, beraz. Ahul samar dabil gure kritika –2002an esan zuen jada Jon Benitok–. Halako liburuak, generoagatik, autoreagatik, testuengatik, itzultzen dizute, tarte batez bada ere, galdutako fedea. ●